ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2026ko abuztuaren 19a, asteazkena • 94 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## VITORIA-GASTEIZKO UDALA

### FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA

**2026ko uztailaren 31n egindako ohiko bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak lanpostu-zerrendan aldaketak egitea onetsi zuen**

Lanpostuen zerrenda da administrazio publikoek beren lanpostuak antolatzeko erabiltzen duten nahitaezko tresna tekniko eta dinamikoa, une bakoitzean kalitatezko zerbitzu publikoa eskaintzeko eta enplegatu publikoak modu ahalik eta onenean kudeatzeko dituzten beharren arabera. Administrazioak bere burua antolatzeko duen ahalaren adierazpena da, legeak babestua.

Hala, zerbitzu publikoak emateko efikazia eta efizientzia bilatzeko ahaleginean, Antolaketa Zerbitzuak, 2026ko uztailaren 22an, txosten tekniko bat eman du Lanpostuen Zerrendaren aldaketa partzialari buruz, udal-sailek planteatutako antolamendu-beharrei erantzutearren. Funtzio Publikoko Sailak egokitzat jo du beharrizan horiek aintzat hartzea eta txertatzea, lortu nahi diren antolaketa-helburuetarako eta giza baliabideen kudeaketarako egokia delako.

Espedientean sartutako aldaketak erabakiaren eranskinean zehazten dira, eta hiru motatakoak dira:

1. Lanpostu jakin batzuen ezaugarriak aldatzea.

2. Lanpostu baten hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-data edo beste lanpostu baten lanaldiaren ehunekoa aldatzea.

3. Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko kabo lanpostua betetzeko eskatutako baldintzak aldatzea.

Espedientea indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera izapidetu da, eta aldeko txostenak egin dira aurrekontu-kredituari buruz, eta halaber egin ditu udaleko kontu-hartzailetzako organoaren titularrak dagozkion txostenak.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 37.2 artikuluan eta abenduaren 1eko Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legearen 40.5 artikuluan xedatutakoari jarraituz, birritan egin dira negoziazio-mahaiaren bilerak udaleko langileen batzordearekin, 2026ko uztailaren 10ean eta 17an.

Euskal Enplegu Publikoaren Legeak 45.3 artikuluan xedatzen du lanpostu-zerrendaren aldaketak lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratu behar direla, ondorioak izango badituzte.

Beraz, aurreko paragrafoetan adierazitakoa kontuan izanik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 127. artikuluak —abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatu zuen artikulu hori— aitortzen dizkion eskumenez baliatuz, eta 2023ko ekainaren 22ko erabakiaren bitartez haren esku utzitako aginpidearen arabera, Funtzio Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkariak erabaki-proposamen hau aurkezten dio Tokiko Gobernu Batzarrari, onets dezan:


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

ERABAKI-PROPOSAMENA

Lehena. Udaleko zenbait sailetan indarrean dagoen lanpostu-zerrendan aldaketak egin daitezen onestea, eranskinean adierazten denaren arabera.

Bigarrena. Lanpostu zerrendan aldaketak egiteko erabaki hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena. 2. puntuan (24 Saila, Kirola, Osasuna eta Garapenerako Lankidetza) jasotako mugimenduaren ondorioen datak, alegia, lanaldi-ehunekoaren igoerak, 2026ko irailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Laugarrena. Funtzio Publikoaren Sailari agintzea behar diren izapideak egin ditzan lanpostuen zerrendan aldaketak egiteko.

Herritar oro jakinaren gainean egon dadin ematen da argitara. Orobat jakinarazten da erabakiak administrazio-bidea amaitzen duela, eta haren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik edo, aukeran, berraztertzeko errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Orokorrari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluekin lotuta) ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 23a

*Funtzio Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkaria*
*JON ARMENTIA FRUCTUOSO*

**ERANSKINA**

1. Lanpostua aldatzea.

09. Funtzio Publikoa.

1. Garbiketako lanpostu baten dotazio bat (ID2075) aldatzea, Antolakuntzaren Kudeaketa Zerbitzuko Zerbitzuen Atal Osagarriari (091502.1904) atxikia, zeina hornitzeko sistema lehiaketa baita; lanpostua C2 taldekoa da, titulazio-betekizuna 200, eskola-graduatua, LHI edo baliokidea, eta honela sailkatua: 1300D Administrazio Orokorreko Eskala eta Laguntzaileen Azpieskala; 1400 D Administrazio Orokorreko Eskala eta Mendekoen Azpieskala, 2130D Administrazio Bereziko Eskala eta Azpieskala Teknikoa eta Teknikari Laguntzaileen Klasea, 2220D Administrazio Bereziko Eskala eta Zerbitzu Berezien Azpieskala eta Su Itzaltze Zerbitzuaren Klasea, 2230D Administrazio Bereziko Eskala eta Zerbitzu Berezien Azpieskala eta Zeregin Berezietako Plazen Klasea, 2241D Administrazio Bereziko Eskala eta Zerbitzu Berezien Azpieskala eta Lanbideetako Langileen klasea, Arduradunen Kategoria, 2242D Administrazio Bereziko Eskala eta Zerbitzu Berezietako Azpieskala eta Lanbideetako Langileen Klasea, Maisuen Kategoria, 2243D Administrazio Bereziko Eskala eta Zerbitzu Berezien Azpieskala eta Lanbideetako Langileen Klasea, Ofizialaren Kategoria, 2244D Administrazio Bereziko Eskala eta Zerbitzu Berezien Azpieskala eta Lanbideetako Langileen Klasea, Laguntzailearen Kategoria, 2245D Administrazio Bereziko Eskala eta Zerbitzu Berezien Azpieskala eta Lanbideetako Langileen Klasea, Langileen Kategoria, 2. hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun data 2019ko otsailaren 1a, destino-osagarria 14 , berariazko osagarria 225, eta ehuneko 100eko dedikazioa, eta honako betekizun hauek: IT 02: internet oinarrizkoa+windows xp+microsoft word xp oinarrizkoa edo open office writer.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Aurrerantzean hau izango da:

Mugikortasun-agentearen (ID berria) lanpostuaren dotazio bat, Antolakuntzaren Kudeaketa Zerbitzuko Zerbitzuen Atal Osagarriari (091502) atxikia, zeina hornitzeko sistema lehiaketa baita, C2 taldekoa, titulazio-betekizuna 200, eskola-graduatua, LHI edo baliokidea, eta honela sailkatua: 1300D Administrazio Orokorreko Eskala eta Laguntzaileen Azpieskala; 1400 D Administrazio Orokorreko Eskala eta Mendekoen Azpieskala, 2130D Administrazio Bereziko Eskala eta Azpieskala Teknikoa eta Teknikari Laguntzaileen Klasea, 2220D Administrazio Bereziko Eskala eta Zerbitzu Berezien Azpieskala eta Su Itzaltze Zerbitzuaren Klasea, 2230D Administrazio Bereziko Eskala eta Zerbitzu Berezien Azpieskala eta Zeregin Berezietako Plazen Klasea, 2241D Administrazio Bereziko Eskala eta Zerbitzu Berezien Azpieskala eta Lanbideetako Langileen klasea, Arduradunen Kategoria, 2242D Administrazio Bereziko Eskala eta Zerbitzu Berezietako Azpieskala eta Lanbideetako Langileen Klasea, Maisuen Kategoria, 2243D Administrazio Bereziko Eskala eta Zerbitzu Berezien Azpieskala eta Lanbideetako Langileen Klasea, Ofizialen Kategoria, 2244D Administrazio Bereziko Eskala eta Zerbitzu Berezien Azpieskala eta Lanbideetako Langileen Klasea, Laguntzailearen Kategoria, 2245D Administrazio Bereziko Eskala eta Zerbitzu Berezien Azpieskala eta Lanbideetako Langileen Klasea, Langilearen Kategoria, Langileen kategoria, 2. hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun datarik gabe, destino-osagarria 14 , berariazko osagarria 213, eta ehuneko 100eko dedikazioa,

2. Kirol Plangintzaren Taldeko buruaren lanpostuaren dotazio bat (ID 1834) aldatzea, Antolakun-w tzaren Kudeaketa Zerbitzuko Zerbitzuen Atal Osagarriari (091502.605) atxikia, zeina hornitzeko sistema lehiaketa baita; C2 taldekoa, titulazio-betekizuna 200, eskola-graduatua, LHI edo baliokidea, eta honela sailkatua: 2130D Administrazio Bereziko Eskala, Azpieskala Teknikoa, Teknikari Laguntzaileen Klasea, 2220D Administrazio Bereziko Eskala eta Zerbitzu berezien Azpieskala, Su Itzaltze Zerbitzuko Klasea, 2230D Administrazio Bereziko Eskala, Zerbitzu Berezien Azpieskala, Zeregin Berezietako Plazen Klasea, 2241D Administrazio Bereziko Eskala, Zerbitzu Berezien Azpieskala, Lanbideetako Langileen Klasea, Arduradunen Kategoria, 2242D Administrazio Bereziko Eskala, Zerbitzu Berezien Azpieskala, Lanbideetako Langileen Klasea, Maisuen Kategoria, 2243D Administrazio Bereziko Eskala, Zerbitzu Berezien Azpieskala, Lanbideetako Langileen Klasea, Ofizialen Kategoria, 2244D Administrazio Bereziko Eskala, Zerbitzu Berezien Azpieskala, Lanbideetako Langileen Klasea, Laguntzaileen Kategoria, 2245D Administrazio Bereziko Eskala, Zerbitzu Berezien Azpieskala, Lanbideetako Langileen Klasea, Langileen Kategoria, 2. hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data 2008ko abenduaren 19a, destino-osagarria 15, berariazko osagarria 214, dedikazioa ehuneko 100ekoa, eta betekizun hauek: "gidabaimena" B "it02: internet oinarrizkoa+windows xp+microsoft word xp oinarrizkoa edo open office writer

Aurrerantzean hau izango da:

Mugikortasun Taldeko buruaren (ID berria) lanpostuaren dotazio bat, Antolakuntzaren Kudeaketa Zerbitzuko Zerbitzuen Atal Osagarriari (091502.605) atxikia, zeina hornitzeko sistema lehiaketa baita, C2 taldekoa, titulazio-betekizuna 200, eskola-graduatua, LHI edo baliokidea, eta honela sailkatua: 2130D Administrazio Bereziko Eskala, Azpieskala Teknikoa, Teknikari Laguntzaileen Klasea, 2220D Administrazio Bereziko Eskala eta Zerbitzu berezien Azpieskala, Su Itzaltze Zerbitzuaren Klasea, 2230D Administrazio Bereziko Eskala, Zerbitzu Berezien Azpieskala, Zeregin Berezietako Plazen Klasea, 2241D Administrazio Bereziko Eskala, Zerbitzu Berezien Azpieskala, Lanbideetako Langileen Klasea, Arduradunen Kategoria, 2242D Administrazio Bereziko Eskala, Zerbitzu Berezien Azpieskala, Lanbideetako Langileen Klasea, Maisuen Kategoria, 2243D Administrazio Bereziko Eskala, Zerbitzu Berezien Azpieskala, Lanbideetako Langileen Klasea, Ofizialen Kategoria, 2244D Administrazio Bereziko Eskala, Zerbitzu Berezien Azpieskala, Lanbideetako Langileen Klasea, Laguntzaileen Kategoria, 2245D Administrazio Bereziko Eskala, Zerbitzu Berezien Azpieskala, Lanbideetako Langileen Klasea, Langileen Kategoria, 2. hizkuntza eskakizuna, derrigortasun-datarik gabea, dedikazioa ehuneko 100ekoa, eta honako betekizun hauek: B gidabaimena.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

15. Espazio Publikoa eta Auzoak.

Lanbide laguntzaile lanpostuaren lau dotazio aldatzea: Dotazio horietako 2, ID228 eta ID219, Espazio Publikoaren eta Natur Ingurunearen Zerbitzuko Paisaiaren Atalari (152007.1825) atxikiak, eta 2 dotazio ID136 eta ID241, Hiriko Mantentze Lanen Atalari (152002.1825) atxikiak, zeintzuk hornitzeko sistema lehiaketa baita, E taldekoak, titulazio-betekizuna 100, titulazio-eskakizunik gabea (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren seigarren xedapen gehigarriaren arabera), honela sailkatuak: 2230E Administrazio Bereziko Eskala eta Zerbitzu Berezien Azpieskala, Zeregin Berezien Plazen Klasea, 2243E Administrazio Bereziko Eskala eta Zerbitzu Berezien Azpieskala, Lanbideetako Langileen Klasea, Ofizialen Kategoria, 2244E Administrazio Bereziko Eskala eta Zerbitzu Berezien Azpieskala, Lanbideetako Langileen Klasea, Laguntzaileen Kategoria, 2245E Administrazio Berezien Eskala eta Zerbitzu Berezien Azpieskala, Lanbideetako Langileen Klasea, Langileen Kategoria, 1. hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-datarik gabe, destino-osagarria 11, berariazko osagarria 250, ehuneko 100eko dedikazioa, eta betekizun hauek: B gidabaimena.

Aurrerantzean hauek izango dira:

Zerbitzu-laguntzaile lanpostuaren lau dotazio (ID berria), Antolakuntzaren Kudeaketa Zerbitzuko Zerbitzuentzako Laguntzako Atalari (091503.1833) atxikia, zeintzuk hornitzeko sistema lehiaketa baita; E taldekoa, titulazio betekizuna 100, titulazio-betekizunik gabea (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren seigarren xedapen gehigarriaren arabera), honela sailkatua: 2230E Administrazio Bereziko Eskala eta Zerbitzu Berezien Azpieskala, Zeregin Berezien Plazen Klasea, 2243E Administrazio Bereziko Eskala eta Zerbitzu Berezien Azpieskala, Lanbideetako Langileen Klasea, Ofizialen Kategoria, 2244E Administrazio Bereziko Eskala eta Zerbitzu Berezien Azpieskala, Lanbideetako Langileen Klasea, Laguntzaileen Kategoria, 2245E Administrazio Berezien Eskala eta Zerbitzu Berezien Azpieskala, Lanbideetako Langileen Klasea, Langileen Kategoria, 1. hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-datarik gabe, destino-osagarria 11, berariazko osagarria 250, ehuneko 100eko dedikazioa.

2. Lanpostuaren hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-data edo lanaldiaren ehunekoa aldatzea.

10. Administrazioa Modernizatzeko Saila.

Telekomunikazioetako goi-mailako teknikariaren lanpostuaren (ID 9535) dotazio bat aldatzea, Ustiapen eta Komunikazio Zerbitzuko Ustiapen Atalari (101201.5045) atxikia, zeina hornitzeko sistema lehiaketa baita, A1 taldekoa, titulazio-betekizuna D03 informatika edo D22 telekomunikazio-teknologien ingeniaritza edo 653 lizentziatura informatikan edo ingeniaritza informatikoan edo telekomunikazioetako goi-mailako ingeniaritzan, honela sailkatua: 2110A Administrazio Bereziko Eskala eta Azpieskala Teknikoa, Goi Mailako Teknikariaren Klasea, 3. hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data 2026ko maiatzaren 15a, destino-osagarria 24, berariazko osagarria 70, ehuneko 100eko dedikazioa eta honako betekizun hauek: B gidabaimena, IT 05; Internet oinarrizkoa, +windows xp+microsoft word xp oinarrizkoa edo open office writer+microsoft powerxpoint edo open office impres+microsoft xp oinarrizkoa edo open office calc.

Aurrerantzean hau izango da:

Telekomunikazioetako goi-mailako teknikariaren lanpostuaren (ID 9535) dotazio bat, Ustiapen eta Komunikazio Zerbitzuko Ustiapen Atalari (101201.5045) atxikia, zeina hornitzeko sistema lehiaketa baita, A1 taldekoa, titulazio-betekizuna D03 informatikoa edo D22 telekomunikazio-teknologien ingeniaritza edo 653 lizentziatura informatikan edo ingeniaritza informatikoan edo telekomunikazioetako goi-mailako ingeniaritzan, honela sailkatua: 2110A Administrazio Bereziko Eskala eta Azpieskala Teknikoa, Goi Mailako Teknikarien Klasea, 3. hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-datarik gabea, destino-osagarria 24, berariazko osagarria 70, ehuneko 100eko dedikazioa eta honako betekizun hauek: B gidabaimena, IT 05; internet oinarrizkoa+windows xp+microsoft word xp oinarrizkoa edo open office writer+microsoft powerpoint xp edo open office impres+microsoft excel xp oinarrizkoa edo open office calc.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

24. Kirola, Osasuna eta Garapenerako Lankidetza.

Honako lanpostu hau aldatzea: Osasun Publikoko Zerbitzuko Osasun eta Kontsumo Unitateari atxikitako albaitaritzako goi-mailako teknikariaren (ID 9363) lanpostua (243001.5013), zeinaren hornikuntza-sistema lehiaketa baita, A1 taldekoa, titulazio-betekizuna 609 albaitaritzako lizentziatura, 2110A Administrazio Bereziko Eskala eta Azpieskala Teknikoa, Goi Mailako Teknikarien Azpieskala, 3. hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data 2023ko martxoaren 3a, destino-osagarria 24 eta osagarri espezifikoa 70, ehuneko 50eko dedikazioa eta betekizun hauek: IT 05: internet oinarrizkoa +windows xp+microsoft word xp oinarrizkoa edo open office writer+microsoft powerpoint xp edo open office impres+microsoft excel xp oinarrizkoa edo open office calc.

Aurrerantzean hau izango da:

Albaitaritzako goi-mailako teknikaria (ID 9363), Osasun Publikoaren Zerbitzuko Osasungarritasun eta Kontsumo Atalari (243001.5013) atxikia, zeina hornitzeko sistema lehiaketa baita, A1 taldekoa, titulazio-betekizuna 609 albaitaritzako lizentziaduna, honela sailkatua: 2110A Administrazio Bereziko Eskala eta Azpieskala Teknikoa, Goi Mailako Teknikariaren Klasea, 3. hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data 2023ko martxoaren 3a, destino-osagarria 24 eta berariazko osagarria 70, ehuneko 100eko dedikazioa eta honako betekizun hauek: IT 05: internet oinarrizkoa+windows xp+microsoft word xp oinarrizkoa edo open office writer+microsoft powerpoint xp edo open office impres+microsoft excel xp oinarrizkoa edo open office calc.

Kostua 23.063 euro.

3. Lanpostuaren betekizunak aldatzea.

03. Segurtasuna.

Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko kaboaren lanpostua aldatzea, zeina Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko Azpieskala Operatiboaren Atalari (034030.9007) atxikia baitago, eta zeina hornitzeko sistema lehiaketa baita, C1 taldekoa, titulazio-betekizuna Z300 batxiler-titulua edo lanbide heziketako teknikariaren titulua edo titulazio baliokide edo homologatuak (Hezkuntzaren Lege Organikoa), honela sailkatua: Administrazio Bereziko Eskala, Su Itzaltze Zerbitzuaren Azpieskala, Kaboaren Kategoria, 2. hizkuntza-eskakizuna, 9 dotaziok derrigortasun-data 2026ko maiatzaren 15a dutela eta beste 9 dotazio derrigortasun-datarik gabeak, destino osagarria 17 eta berariazko osagarria 850, ehuneko 100eko dedikazioa eta betekizuna CB08 B gidabaimena.

Aurrerantzean hau izango da:

Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko kaboaren lanpostua (034030.9007), Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko Azpieskala Operatiboaren Atalari (034030.9007) atxikia, zeina hornitzeko sistema lehiaketa baita, C1 taldekoa, titulazio-betekizuna Z300 batxiler-titulua edo lanbide-heziketako teknikariaren titulua edo titulazio baliokide edo homologatuak (Hezkuntzaren Lege Organikoa), honela sailkatua: Administrazio Bereziko Eskala, Su Itzaltze Zerbitzuaren Azpieskala, Kaboaren Kategoria, 2. hizkuntza-eskakizuna, 9 dotaziok derrigortasun-data 2026ko maiatzaren 15a dutela eta beste 9 dotazio derrigortasun-datarik gabeak, destino-osagarria 17 eta berariazko osagarria 850, ehuneko 100eko dedikazioa eta betekizuna CB03 B gidabaimena, DB02 C gidabaimena eta titulutxoa, nabigazio baimena edo baliokidea.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.08.19 05:16:29 Z